

Espediente mota: Administrazio kontratazinoa. Prozedura irekia.

Kontratua: Bermeoko Udalalari, bere erakunde autonomoen eta berualaren gutun, propaganda, jakinarazpen eta bandoak herri barruan banatzearen zerbitzua esleitzeko kontratazino espediente.

Espediente zenbakia: EK-17-260

## KONTRATAZINO MAHAIAREN BILKURAKO AKTA

### 1) Bilkurari buruzko datuak

- Bilkura eguna: 2018-03-12
- Ordua: 11:05
- Lekua: Kultura etxeko batzar gelan.
- Kontratuaren xedea:  
Bermeoko Udalalari, bere erakunde autonomoen eta berualaren gutun, propaganda, jakinarazpen eta bandoak herri barruan banatzearen zerbitzua.
- Jardunbidea eta esleipen modua: Prozedura irekia.
- Hedabidea eta argitarapen ofizialaren data: BAO-n 2018-02-01an bidalita; BOE-ean 2018-02-16an argitaratua.

### 2) Bertaratu diranak

. Mahaiburua: IRUNE ORMAETXEA LEGARRETA A<sup>a</sup>

. Mahaikideak:

JOSE MARI LARROZEA ETXEBARRIA zinegotzi J<sup>a</sup>

AINGERU ASTUI ZARRAGA zinegotzi J<sup>a</sup>

Teknikariak:

JURDANA URIARTE LEJARRAGA A<sup>a</sup> Udal Idazkari Orokorra.

EDURNE URRUTIA URIARTE A<sup>a</sup> Udal Kontuhartzailea.

Mahaiko idazkaria: NESTOR LARRUZEA ORMAZA J<sup>a</sup> admistraria.



- **Bilkuraren edukia eta erabakia**

Mahaiko Idazkariak gaurko deialdiaren nondik norakoak azalduz. Deialdian zehaztu bezala, eskaintza ekonomikoen B) gutunazalak irekitzea eta horrela bajagoko, jagokon esleipen proposamena burutzea da gaurko batzarraren helburua.

Mahaiko Presidenteak aurkeztu dan eskaintza bakarraren B) gutunazala irekitzen dau eta Udaleko Idazkari andreak banakako prezioek taula irakurtzen dau.

- ESTIBALIZ EGUSQUIZA SANTOS -72.315.893-Y. Lote bakarra.

Behin konprobatuta eskeinitako prezio taula Baldintza Plegu Administratibo zehaztetako 4. Atalean zehaztutako gehieneko prezioetatik behera dagoala, eskaintza baloratzera ekin deutso kontratazio mahaiak, Baldintza Plegu Administratibo Zehaztetako 18.atalaren arabera, ondorengo emaitzarekin:

Prezioa %75 puntu:.....75 puntu.

Banaketak egiteko epeen hobetzea...%25 puntu.

(...) hobatzen dan ordu bakoitzeko puntu 1.....0 puntu.

(...) hobatzen dan egun bakoitzeko puntu 2.....4 puntu

Danetara.....79 puntu.

Udaleko Idazkari Orokorrak adierazi dau, esleipendunari helarazi behar jakola beharrezko dokumentazioa aurkezteko errekerimendua, hamar (10) eguneko epearen barruan aurkeztu daien.

**ERABAKIA:**

**Guzti honen aurrean, kontratazio mahaiak zera erabaki dau:**



Lehena: akta hau kontratugilearen profilean argitaratzea.

Bigarrena: ESTIBALIZ EGUSQUIZA SANTOS -72.315.893-Y lizitatzaileri jagokon dokumentazioa aurkezteko errekerimendua helaraztea eta horretarako hamar eguneko epea daukala agertuz. Horrela egin ezean, partehartzea bertan behera geratzen dala ulertuko dala ohartaraziz, behin-behineko bermearen exekuzioa ekarriko leukena, besteak beste.

Hirugarrena: Behin dokumentazio guztia aurkeztuta, kontratazio mahai honen esleipen proposamena Tokiko Gobernu Batzarrera helaraztea, ESTIBALIZ EGUSQUIZA SANTOS -72.315.893-Y lizitatzailerearen alde.

Bilkuraren gaia diran egitekoak amaituta, mahaiburuak 11:15etan amaitutzat jo eban bilkura, eta mahaiko idazkaria nazan aldetik, bilkuraren akta egin dot.

MAHAIBURUAK

Izenpea

IDAZKARIAK

izenpea

